

## Johan D'haenen irakasle belgikarra Huhezín dago irakasle gonbidatu gisa

2008/12/12

Asteartea ezkerro, Johan D'haenen irakasle belgikarra Eskoriatzan dago, hiru egunez irakasle gonbidatu gisa jardungo baitu Huhezín. D'haenen jauna irakaslea da Howest Unibertsitatean, Komunikazio Fakultatean hain zuzen ere, eta hor **Argazkilaritza, Diseinua eta Filosofia** irakasten du.



Hemen dagoela, Johan D'haenen irakasleak **hiru eskola emango ditu** Goio Arana irakaslearen eskola orduak hartuta. Ingelesez arituko da, azaltzeko 1., 2. eta 4. mailako ikasleei zer garrantzi duten **irudiek informazioaren diseinuan**. Horrezaz gain, **lan bazkariak** egingo ditu Ikus-entzunezko Komunikazioan diharduten hainbat irakaslerekin, eta **bilera bat** Informazioa eta Komunikazioa departamenduko kideekin. Bilera horretan azalduko du zein den Komunikazioa ikasketen curriculumak Howest Unibertsitatean, zer praktika sistema duten, beren ikerkuntza eremurik inportanteenak eta nazioarteko estrategia.

Huhezi gero eta indar handiago egiten ari da ikasle eta irakasle trukeak bultzatzeko nazioartean. Johan D'haenen irakaslearen bisita egitasmo horren barruan sartzen da.